

1- ENTZUN AURRETIK

1.1 Loreak



1. Ezagutzen dituzu lore hauek? Lotu irudiak izenekin.

Loreak				
1	2	3	4	5
				
tulipana	arrosa	margarita	krabelina	orkidea



Zer lore da zure gustukoa? Eta beste pertsona bati oparitzeko? Komentatu binaka.

- *Niri margaritak gustatzen zaizkit gehien.*
- *Ba niri arrosak. Baina oparitzeko, nahiago dut orkidea bat oparitu.*
- *Nik krabelinak ditut gustuko. Oparitzeko, arrosak, arrosa gorriak.*



Komentatu talde osoaren aurrean zuen taldean aukeratu dituzuen loreak.



2. Entzungo duzun istorio honetan, Josu plazara joan da loreak erostera. Norentzat direla uste duzu? Komentatu lagun batekin.

2- ENTZUN BITARTEAN

2.1 Loreak oparitzeko



Entzun audioa eta erantzun galderari. Adostu erantzunak lagunarekin.

1. Josu plazara...

- orain joan da lehenengo aldiz.
- beste egun batean ere joan zen lagun batekin.
- astero joaten da amarekin.

2. Zertarako nahi ditu Josuk loreak?

- Lagun bati oparitzeko.
- Etxera eramateko.
- Loreontzi batean jartzeko.

3. Josuk ez du orkidearik oparitu nahi,....

- ez zaizkiolako gustatzen
- Amaiari ez zaizkiolako gustatzen.
- Amaiak zerbait arraroa pentsatu dezakeelako.

4. Plazako baserritarrak esaten dio Josuri hobeto pentsatzeko....

- zer lore nahi duen.
- zer sentitzen duen.
- zenbat diru gastatu nahi duen.

5. Azkenean, zer lore erosi du plazan?

- Orkideak.
- Krabelinak.
- Ez du lorerik erosi.

3- ENTZUN ONDOREN

3.1. Proposamenei erantzuten



Idatzi ondorengo taulan Josuk saltzailearen proposamenei zer erantzuten dion. (Taula osatzeko, proposamenak onartzeko formulak jarrita dituzu).

Proposamenak

Ez onartzeko	Zalantza	Onartzeko
- - -	-	- Oso ideia ona. - Ilusioa egingo dio. - Gustatuko zaio. - Hori egiten badiogu, poz-pozik jarriko da. -

ⓘ Jarri arreta hizkuntzan

Baldintzako esaldiak proposamenak egiteko

Baldintzako esaldiek bi partez osatuta daude:

1. Baldintzako esaldia: **aditza orainaldi ez burutuan + (baldin) ba**
2. Ondorioa: aditza gertakizunean

- Hori **oparitzen (baldin) badiogu**, zer pentsatuko du?
- Merkea **(baldin) bada**, ez da ona izango.
- Loreak erosiko dizkiogu, konforme **(baldin) bazaudete**.

3.2 Hori oparitzen badiogu, zer pentsatuko du?

📝👤 **Osatu ezkerreko zutabeko esaldiak baldintzako aditzak erabiliz, eta lotu eskuineko esaldiekin.**

Zuek prest (egon). Prest (baldin) bazaudete (1)	1- abiatu egingo gara.
Zure urtebetetzea (izan), ()	2- ez digute kasurik egingo.
Zu gehiago (hurbildu), ()	3- sasoian egongo zarete.
Guk irakasleari kolonia (erregalatu), ()	4- ez al da haserretuko?
Eguraldi txarra (egin), ()	5- zorionak!
Nik zuri sekretu bat (esan), ()	6- ez diozu inori kontatuko?
Guk sano (jan), ()	7- urte gehiago biziko gara.
Elurra (egin), ()	8- lagunak eskiatzera joango dira.
Gu (kexatu ez), ()	9- ez naiz etxetik aterako.
Zuek (kirola egin), ()	10- hobeto ikusiko duzu.

3.3 Elkarri opariak egiten

Erabaki binaka opari bat klaseko ikaskide batentzat, eta bete fitxa hau:

<p>Oparia:</p> <p>Norentzat:</p> <p>Arrazoiak:</p> <p>.....</p>

- *Bonboiak erregalatuko dizkiogu?*
- *Bonboiak? Ezta pentsatu ere. Zer pentsatuko du?*
- *Orduan zer?*
- *Ba....*

Elkartu launaka eta komentatu opariak. Oparia jasotzen duzunean, adierazi poza, harridura...

Hitz egitean erabiltzeko esaldiak
<ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Opari bat daukagu zuretzat, Mertxe?</i> ● <i>A bai! Zer sorpresa! Eta zer da?</i> ○ <i>DVD bat, El padrino.</i> ● <i>Eta zergatik?</i> ○ <i>Mafiako istorioak asko gustatzen zaizkizulako.</i> ● <i>Eskerrik asko. Ilusio handia egiten dit.</i>

Harridura, poza.... adierazteko
<ul style="list-style-type: none"> - Askok poztzen naiz! - Ilusioa egiten dit! - Bete-betean asmatu duzue! - Eskerrik asko! - Portatu zarete! - Bueno, ez dago gaizki. -

Irakasleak guztion fitxak jasoko ditu. Ea denon artean asmatzen duzuen opariak norentzat diren.